

DONOSTIA

Mayo 2006ko Maiatza

Hiriko neska eta mutilen **Adierazpena**

Manifiesto de los chicos y chicas de la ciudad

**Hiri iraunkor
baterako**

proposamenak

Propuestas

**para una ciudad
más sostenible**



Donostiako eskolako Agenda 21

Agenda 21 escolar de Donostia-San Sebastián

Donostiako neska-mutilentzako V. Entzunaldi publikoa

V Audiencia pública a los chicos y chicas de Donostia-San Sebastián

Haurren Eskubideen Konbentzioko 12. Artikulua (Nazio Batuak, 1989)

“Iritzi propioa izateko gai den haurri Estatu kideek iritzia askatasun osoz azaltzeko aukera bermatuko diote, haurri berari dagozkion gai guztietan, eta beti bere adin eta heldutasunaren arabera.”

Artículo 12 de la Convención de los Derechos del Niño (Naciones Unidas, 1989)

“Los estados partes garantizarán al niño que esté en condiciones de formarse un juicio propio, el derecho de expresar su opinión libremente en todos los asuntos que le afectan, teniéndose debidamente en cuenta sus opiniones en función de la edad y madurez del niño”.

Donostiako eskolako agenda 21

Agenda 21 escolar de Donostia-San Sebastián

Donostiako neska-mutilentzako V. Entzunaldi publikoa

V Audiencia pública a los chicos y chicas de Donostia-San Sebastián

Mayo 2006ko Maiatza

Hiriko neska eta mutilen **Adierazpena**

Manifiesto de los chicos y chicas de la ciudad

**Hiri iraunkor
baterako**

proposamenak

Propuestas

**para una ciudad
más sostenible**



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

1. Aurkezpena

Donostiako 2.300 neska-mutil gara eta urtean zehar honako bi prozesutan parte hartu dugu: Eskoletako Agenda 21 programan eta Donostiako Neska-mutilentzako V. Entzunaldi publikoan.

Nahiz eta bi egitasmo desberdinetan lan egin, ondorio guztiak batu ditugu Udaletxera dokumentu bakarrekin etortzeko, jarraian aurkezten dugun manifestua.

Eskola hauetako ikasleek hartu dugu parte:

• Arantzazuko Ama Ikastola • Barandiaran Lizeoa • Catalina de Erauso Ikastetxea • Colegio Inglés San Patricio • Ekintza Ikastola • Herri Ametsa Ikastola • Instituto de Alza • La Anunciata Ikastetxea • Orixe Ikastola • Politécnico Easo • San Ignacio Ikastetxea • San Luis la Salle Ikastetxea • Sdo. Corazón Mundaiz Ikastetxea • The English School • Zubiri-Manteo Ikastetxea

Eta talde hauetako partaideek:

• AGI • Altzako kale hezitzaileak • Intxaurrendoko kale hezitzaileak • Mundo Nuevo aisialdi taldea

Batik bat, ingurugiroaren iraunkortasunaren inguruan aritu gara lanean, kontsumoen eta hondakinen inguruan batez ere.

Irakasleek esan zigutenean zer egin behar genuen, hirian gaurkotasan handia duen gai baten inguruan arituko ginela esan ziguten, horren inguruan hainbat ondorio atera beharko genituen, gainerako eskoletako eta taldetako neska-mutilekin partekatze eta eztabaidatzeko gero Udaletxera ekartzeko eta zuekin ere eztabaidatzeko. Asko gustatu zitzaigun ideia, eta beraz, hasieratik oso interesgarria iruditu zitzaigun parte hartzea. Prozesua oso entretenigarria izan da: fitxa batzuetaz baliatuz eskolatik irten eta ekintza desberdinak burutu genituen: eskola inguruko kaleak garbi ala zikin ote zeuden ikustea; galdeketa batzuen bidez gure etxeetako kontsumo eta birziklatze ohiturak ezagutzea; dendetan eta tabernetan egon gara beraien jarrerak eta beharrak analizatzeko; kaleetako birziklapenerako edukiontzia behatzen ere aritu gara; gure etxeetara heltzen den publizitatea zenbatu eta analizatu dugu; hipermerkatu handiek bultzen duten kontsumoaren inguruan hitz egiteko aukera izan dugu; gure etxeetan sortutako hondakinak sailkatu ditugu, hainbat zakar poltsa ikasgelara eramanaz. Lan hauek burutu ostean, informazioarekin balorazio bat egin genuen ideia orokorrak eta proposamen zehatzak biltzeko. Ondoren eskola edo talde bakoitzeko ordezkariak bildu egin ginen ikasgeletan burututako lana bateratzeko.

Gauza asko ikasi ditugu: zer den garapen iraunkorra; gehiegi kontsumitzen dugun ala ez; zer diren hondakinak; horiekin zer egiten den; azkenaldian hondakin gehiegi sortzen dugu eta, ondorioz, arazo larriak sortzen ari direla; gure aztar-na ekologikoa analizatu dugu; energia berriztagarriak ezagutu ditugu; konponbideen inguruan ere mintzatu gara... Gai honek zer pentsatua eman digu gure ohituren inguruan eta



adierazpena

horiek ingurugiroan duten eraginaren inguruan.

Egia esan, modu desberdinean bizi izan dugu: hasiera batean, birziklatze ikastaro tipiko bat izango zela uste genuen, baina ez, analizatu eta ikasi egin dugu, ondoren hitz egin, eztabaidatu, proposatu eta adostu ahal izateko. Honi guztiari esker, kontzientzia hartzen hasi gara, eta orain lehen egiten ez genituen gauzak egiten ditugu, adibidez, sukaldeko argia itzaltzen dugu handik irtetean...

Honen guztiaren atzean Udaletxea zegoela jakin genuenean ongi iruditu zitzaigun, baina hainbat zalantza sortu zitzaizkigun... gerora, gure iritzia aintzat hartzen dutela ikusi dugu eta hori asko gustatu zaigu. Esan nahi duguna zera da, hau guztia eskolan egin ditzakegun ikastaroekiko desberdina dela... gure ahotsa entzun dute, nahiz eta gero guk egindako proposamen eta iradokizun guzti guztiak ez onartu eta aplikatu.



Gauza berri bat izan da hemen parte hartzea: ikastea; iritzia entzutea; jende berria ezagutzea; besteek zure iritzia entzutea eta zuk beraienak.

Aurten landu dugun gaia guretzako modukoa da: azken finean, hazi egingo gara, eta behar bada guraso bilakatu gara eta ezinbesteko zaigu mundu bat edukitzea gure seme-alabak eta bilobak bizi daitezen, beraz, mundua zaintzen saiatu behar dugu. Gure ustez, arazo konpontzeko gakoa jendearen ohiturak aldatzean datza, horrekin bakarrik bide luzea urratuko genuke. Ez dakigu ziur gai honekin etorkizunean zer gertatuko den: batzuk uste dugu, ongi joango dela birziklapenarekin pausak ematen ari garelako; jende asko birziklapenaren munduan sartzea lortu da. Beste batzuren ustez, gauzak ez dira ongi joango geroz eta materialistagoak eta egoistagoak baikara. Gureak diren gauzak bakarrik axola zaizkigu eta zientziak aurrerapen handiak ekarri dituen arren, honekin bakarrik ezingo dira arazo guztiak konpondu... beharrezko da denok konpromezu pertsonalak hartzea.

4

2. Nola ikusten dugu?



Ikasturte guztian zehar garapen iraunkorraren inguruan lanean aritzea izan da hartu dugun lehen konpromezua. Lehenengo pausua hondakinen, mugikortasunaren, publizitatearen eta kontsumoaren egoera aztertzea izan zen, hauen egoera gure hirian, auzoan, etxean, eskolan, kalean lagunekin... Lehenengo atal honetan, gauza askotaz jabetzeaz gain, asko ikasi dugu:

Kontsumoa (ura, elektrizitatea...):

- Badakigu asko kontsumitzen dugula eta horren erruz gu baino gutxiago kontsumitzen duten herrialdeei baliabideak kentzen dizkiegula. Honek arazo larriak ekar diezazkieke datozen belaunaldiei, baina hori ez da konponduko jendeak kontzientzia hartzen ez badu.
- Uraren gaia da gehien hunkitzen gaituena, nahiz eta falta zaigunean arduratu hortaz (ura moztzen dutenean, urtegiak erdi hutsik daudela entzuten dugunean...). Askok iturria itxi egiten dugu hortzak garbitzen ditugunean, edota harrikoa egiten ari garenean.

- Badakigu energia aurreztu egin behar dela, baina honek berez ez gaitu arduratzen. Eskola edo zentruen artean uraren eta energiaren kontsumoan desberdintasun handiak daudela ikusi dugu. Honetarako, dena den, arrazoi desberdinak egon daitezke; zentruan kirol ekintzak burutzearen arabera, jangela eta sukaldea izatearen arabera...
- Energia berriztatzaileei dagokienez: ezagutzen ditugu baina ez daude baliabide nahikoak horiek erabiltzeko.



Hondakinak:

- Hondakina zer den ikasi dugu, mota askotakoak daudela eta batzuk oso arriskutsuak direla (horiek errez gero ingurugiroa kutsatzen delako), Lurrera beharrean nora bota behar diren ikasi dugu; baita kolore bakoitzeko edukiontzian zein hondakin mota bota behar den ere. Argi geratu zaigu zertarako balio duten atalkako bilketarako edukiontziek.
- Eskolako patioan aurkitutako hondakinak birziklatu daitezken ala ez.
- Ez genekien olio eta beste hondakin toxikoen bilketa egiten zela eta orain badakigu.
- Ikusi dugu mundu guztiak bere hondakinak birziklatuko balitu, ez zela ia zaborrik geratuko eta ez genukela erretzeko beharrik izango.
- Gutako gehienok etxean birziklatu egiten dugu, baina egiten dugun banaketa oso praktikoa izan arren, askotan ez da eroso suertatzen espazio falta dela eta.
- Honako hauek dira gehien birziklatzen ditugun hondakinak, honako hurrenkera honetan:
 - Papera eta kartoia
 - Pilak
 - Kristala
 - Plastikoa eta arropa
- Gure ustez, hondakin organikoak eta ez-organikoak bereiztu beharko genituzke birziklapenaren beste alternatiba baten gisan.
- Arropari dagokionez, nahiz eta berrerabiltzeko aukera izan eta horretan aritzen diren dendak egon, ez gaude bigarren eskuko erosteko prest, higienikoa ez dela pentsatzen dugulako. Gainera, hain arropa merkea egonik, ez dugu honetara jotzeko beharrik ikusten. Dena den, gutariko batzuri ez zaigu axola gure anai-arreben arropa erabiltzea.
- Zabor asko sortzen dugu, uste duguna baino gehiago, eta horrekin lortzen duguna kutsadura arazoak dira, gauzak oso gutxi aprobetxatzen direlako. Modu honetako arazorik egon ez dadin, hondakin gutxiago sortu beharko genuke, MURRIZTU, BERRERABILI eta BIRZIKLATU.
- Atal honekin amaitzeko, hirugarren mundua aipatu behar dugu, badakigulako askotan gure hondakinak leku horietara eramaten direla eta hori ez zaigu bidezkoa iruditzen.

Birziklatze:

- Birziklatzea erabilgarriak izaten jarraituko duen beste mota bateko objektua egitea da, eta guk zakarretara botatzen ditugu birzikla daitezken hainbat gauza.
- Birziklatzea oso garantzitsua da; geroz eta gehiago birziklatu, orduan eta gutxiago kutsatuko dugu. Hortaz, birziklatzea ezinbesteko da zabor kantitate gutxiago sortzeko. Adibidez, papera birziklatuz zuhaitz gutxiago moztuko dira.
- Hasieran uste genuena baino askoz gutxiago birziklatzen dela jakin dugu.



adierazpena

- Edukiontzia behar den bezala erabiltzen ikasi dugu: ontziak garbitu egin behar dira bota aurretik, plastikozko poltsatik atera egin behar dira...
- Gezi bat (puntu berdea) duten ontziak birzikla daitezke.
- Material desberdinen birziklatze prozesua ikusi dugu.
- Urnietako Ontzi Sailkatze lantegian zer egiten den ikasi dugu.

Zikinkeria:



Zikinkeriarri dagokionez, Donostian leku batzuk besteak baino zikinagoak daudela ikusi dugu, baina orokorrean, hiria egoera onean dagoela pentsatzen dugu.

Jende gehienak, inongo beldurrik gabe botatzen ditu gauzak lurrera, badakielako hurrengo egunean norbaitek jasoko dituela, eta horixe da hain zuzen politikopoliki aldatu behar duguna. Asko arduratzen gara gureak diren gauzak zaintzen, baina ez hainbeste denonak direnak.

Mugikortasuna:

- Hainbat zentrotan ez dago maila guztientzako garraiorik, eta ondorioz, garraio publikoa erabiltzera behartuta gaude eta ez dugu inongo dirulaguntzarik jasotzen gastu hauei aurre egiteko.
- Garraio publikoa oso garestia dela pentsatzen dugu. Abantailak dauzkagu Donostian bertan bizi garenek kanpoaldean bizi direnen aldean, bonobusa esaterako, ez baitu balio inguruko herrietara joateko.
- Erosketak egitera joateko normalean kotxea erabiltzen da, inoiz ez garraio publikoa.

Publizitatea eta kontsumoa:

- Kontsumo ekologikoaren inguruko kasu praktiko bat egin dugu.
- Hipermerkatuen inguruko analisi bat ere egin dugu.
- Zakarrontzira botatzen dugun paperaren kopuru handi bat publizitatea da (gainera normalean ez da paper ekologikoa izaten), hortaz, hauxe gutxituz gero bestea ere gutxitu egingo litzateke.
- Salmenta estrategiei buruz, gure ustez, supermerkatuak nahi duena egin dezakela salmentek gora egin dezaten (esaterako, askotan prezioetat baliatzen dira jendea erakartzeko). Hortaz, norberak neurtu behar du kontsumoa nola kontrolatu.



3. Konpromezuak

Ingurugiroa zaintzekoeta hiri iraunkorak lortzeko, guztion parte hartzea beharrezko da; horregatik, betetzen saiatuko garen hainbat konpromezu hartu ditugu:



Konpromezuak eskolan:

Badakizue eskolan ordu asko igarotzen ditugula, horregatik lehenik konpromezu hauen inguruan arituko gara:

- Hondakin gutxiago sortzen saiatuko gara eta ahal den guztia birziklatzen.
- Eskolako materialak zaintzen saiatuko gara (tizak, koadernoak, pinturak...) bukatu gabe baldin badaude ez ditugu botako eta papera berrerabiliko dugu.
- Modu egokian erabiliko ditugu gelan jarritako edukiontzi desberdinak.
- Paper higienikoa aprobetxatu, beharrezkoa dena soilik erabiliz.
- Eskola eta kaleak garbi mantentzen saiatuko gara, lurrera ezer bota gabe (ezta pipa azalak ere).
- Zakarrontziak behar bezala erabili: ez dugu zaborra urrutitik jaurtiko zabor guztia edukiontziaren inguruan eroriz.
- Irteera eta txangoetan sortzen dugun zaborra motxilan sartuko dugu.
- Paper birziklatua erabiliko dugu.

Eskolaz kanpoko norberaren konpromezuak:



Jendea ez dago gutxiago kontsumitzeko prest, modu horretan bere bizi mailak aldaketa handia jasango duela pentsatzen duelako (zentzu negatiboan). Hori egin ez arren, badakigu zerbait egitea ezinbestekoa dela, eta horretarako norberaren ahalegina oso garrantzitsua da, banako guztien baturarekin lortuko baitugu emaitzarik onena. Hiritarrak hontaz jabetzea da lehentasuna, eguneroko bizitzako aldaketa txikiak baitira beharrezkoak: etengailua edo interruptorea itzaltzea, beharrezko ez direnean argiak itzaltzea, iturriak ixtea, uraren hornikuntza sistemari itxitura automatikoak jartzea eta, azkenik, etxeetan neurri termikoak jartzea.

- Etxeko hondakinen banaketaren ardura guk ere hartzea.
- Gurasoei informatu ahal den guztia birziklatu dezaten.
- Hondakinak kalera jeistearen arduraren banaketa egin etxean.
- Erosketak egiteko garaian, beharrezkoak diren plastikozko poltsak hartu soilik.
- Bilgariak berrerabili, otartekoen zilarrezko papera esaterako.
- Ingurugiroa eta hondakinen murrizketa kontutan hartu erosketak egiteko garaian: etxetik eraman poltsa, erosketen zerrenda egin etxetik irten aurretik, produktu kontzentratuak eta tamaina handikoak aukeratu, fruta aleka erosi eta ez aurrez bilduta datorrena...

Murriztu Berrerabili Birziklatu

adierazpena

- Izorratzen diren gauzak konpontzen saiatu.
- Gauzak gehiago berrerabili: gure arropa berrerabili, kritalezko ontziak gauzak gordetzeko erabili, paperen bi aldeetan idatzi...
- Orain arte birziklatzen ez genituen gauzak sailkatu (olioa esaterako)
- Garbitu eta tapa kendu ontziei birziklatzera bota aurretik.
- Ura eta energia alferrik ez gastatu: beharrezko ez direnean argiak itzali, iturriak itxi, berogailua pizturik dagoenean ez leihorik ireki...
- Garraio publikoa erabili.
- Bizikleta erabili.
- Gure inguruko jendea informatu eta jarrera egokiak ezagutarazi horretarako gu eredu izanik.



4. Proposamenak

Lehenago ere esan dugu garapen iraunkorra denon esku dagoela, inor ez da ardura horretatik kanpo geratzen...

Zientziak baliabide gehiago jarri beharko lituzke ingurugiroaren, gizartearen eta ekonomiaren garapen iraunkorra lortzeko.

Energia berriztagarriak eta erregai ekologikoak ikertu eta garatu behar dira, eta egun bizitzeko modukoak ez diren lekuak egokitzen saiatu: basamortuak, gune polarrak... Fenomeno meteorologikoen kontrola ikertu behar da, ozono kapa berreraikitze ahalegina egin, ura heltzen ez den lekuetara iritsiarazi (herrialde behartsuetara, gure hondakinen karga beraiek jasotzen baitute).



Fabrikatzaileei eskatuko genieke...

Produktuak biltzeko garaian hondakinen sorkuntza eta kutsadura kontutan hartzea, produktu beraren bolumena hartu behar baita aintzat.

Bestalde, produktuak etiketa egokia eta osatua izan behar dute, ezaugarriak eta jatorria kontutan harturik; horrela, argi geratu beharko da esaterako, ea produktuak transgenikoak diren, eta ea lan baldintza egokitan burutu dela egiaztatzen duen arautegia betetzen duen.

Salerosleei, supermerkatuei eta ostalariei...

- Esan nahi diegu erabiltzen dituzten produktuak berrerabiltzearen eta birziklatzearen garrantziaz jabetu behar direla, hondakinak ahalik eta gehien murriztuz, energia, ura...
- Dendetan hondakin gutxien sortzen duten produktuak saldu beharko lituzkete eta paperezko edo oihalezko poltsak erabili gauzak biltzeko.
- Hipermerkatuei plastikozko poltsen kopurua jeistea eskatuko genieke, erosleak beraien poltsa erabiltzra sustatuz.
- Supermerkatuei eta dendei presioa egin behar zaie birziklatzeko, adibidez, erreklamazio orriak beteaz.
- Ostalaritzan (McDonals, Burger King...) ez litzateke erabilera bakarreko produkturik kontsumitu behar.
- Publizitatea egiterako garaian hainbat muga ezarri, horretarako paper gutxiago erabiliz.
- Denok saiatu beharko ginateke erosketan poltsak erabiltzen, zerrenda bat egin beharrezkoa dena soilik erosteko eta tamaina familiarreko produktuak aukeratu, hondakin gutxiago sortzeko.
- Etxeetako postontzietan jasotzen dugun publizitatea gehiegizkoa dela iruditzen zaigu, askotan publizitate bera errepikatuta izaten dugu. Hori guztia murrizteko eta Interneten erabileraren hedapena ikusirik, publizitatea hedabide honetara zabaltzea aukera bat izan daiteke.

Udaletxeari...

Ingurugiroan ematen ari den hondakin metaketa, arazo ekologiko handienetarikoa ari da bilakatzen. Ez ditugu gure etxean nahi, baina badairudi berdin zaigula gure espazio publikoan uztea. Gure ustez Udaletxeak hainbat neurri har ditzake honen inguruan, gure hiria zabortezi izugarria bilaka ez dadin. Honako hauek dira gure proposamenak:

adierazpena

Kanpainak:

Jendeari jakinarazi behar zaio birziklatzea oso garrantzitsua dela eta denon esku dagoela. Bestela, erraustegi asko beharko dira eta oso kutsakorra gerta daiteke. Inork ez du erraustegi bat bere etxe ondoan nahi. Kanpaina eraginkor baten bidez informazioa bidali etxeetara, tabernetara, dendetara... oso argia izan behar da informazio hori, irudi onekin ornitua, jendeak behar den bezala jakin dezan non eta nola birziklatu behar den. Kanpaina eraginkorra eta hunkigarria egin behar da, bai prentsan eta baita irrati eta telebistan ere, ingurugiroan eragiten duen kaltea azaltzeko. Esaterako, "Horrela jarraitzen badugu urte batzuetara hiru zuhaitz baino ez dira izango munduan".

- Ez izan kontutan birziklapena soilik, baita murrizketa eta berrerabilera ere.
- Eskoletako Agenda 21 programa indartu.

Hondakinak murrizteko:

- Lurrazpiko edukiontzi gehiago, ostalaritzarako batik bat; horrela ezingo dira irauli. Gainera parasitoak, usain txarrak... ekiditen dira.
- Pilentzako edukiontzi gehiago, gutxiegi daudela iruditzen zaigu. Auzoetako toki estrategikoetan jarri behar dira, jendeak eskura izan ditzan.
- Gehiegizko bilgarria dituzten produktuen erabileraren aurka zerbait egin. Argitaraldi bakoitzari muga jarri dakioke eta baita zerga ere hainbeste hondakin sortzeagatik. Dirua hori gestionatzeko erabil daiteke. Modu honetan enpresek gehiago kontrolatuko dituzte euren hondakinak eta gutxitu egingo liratezke.
- Kaleetan mota guztietako edukiontzi gehiago jarri (Martutenen, Egiako goikoaldean portuan...) sarri garbitu eta hustu usain txarrik izan ez dezaten. Birziklatu egin nahi dugu baina askotan ezin dugu edukiontziak beteta egoten direlako.
- Eskolen kanpoaldean mota guztietako edukiontziak izatea gustatuko litzaiguke. Hainbat kasutan arazoak izaten ditugu hondakinak kanporatzeko garaian, behar dugun edukiontzia urrunegi dagoelako.
- Kaleetako edukiontziak ez daude egoki hiritar guztientzat: zulo txikiegia dute eta altuegi egoten da. Haurrentzat eta zaharrentzat, itsuentzat egokitutako edukiontziak nahiko genituzke.
- Arropa biltzeko edukiontzi gutxi daudela iruditzen zaigu. Gehiago jartzea nahiko genuke.
- Olio eta hondakin toxikoak biltzen dituen kamioia sarriago eta leku gehiagotik pasatzea nahiko genuke. Pasatzen denean etxean ez bagaude, hondakinak pilatu egiten zaizkigu eta azkenean zakarrontzira botatzen ditugu.
- Egokia litzateke hondakin toxikoak uzteko leku bat jartzea, kamioia noiz pasako zain egon ez daiteken jendearentzat.
- Kubo bereziak banatzea edota horiek diru gutxiren truke eskuratzeko aukera eskaintzea gustatuko litzaiguke, etxeetan hondakinen banaketa errazteko.
- Eskoletan kubo bereziak banatu beharko lituzkete plastikoak ikasgelan biltzeko.
- Materia organikoa biltzeko edukiontziak jartzea.
- Kaleetan eta parkeetan egoten diren zakarrontziek hondakin desberdinak jasotzeko aukera eman dezatela: papera, kristala, plastikoa eta zaborra. Koloreen bidez bereiz daiteke.
- Hondartzan ere jarriko genituzke mota honetako zakarrontziak.
- Eskolako patioako zakarrontziak egunero hustutzea.

- Telebistak eta tresna elektronikoak berrerabiltzea eta birziklatzea garrantzitsua iruditzen zaigu (izorratuta egon arren piezak berrerabili baitaitezke) hauen erabilera egun oso handia baita. Hortaz, mobilak eta ordenagailuak non birziklatu daitezken jakinaraztea ezinbesteko litzateke, modu honetan denok jakingo genuke nora eraman behar diren eta piezak berrerabili ahal izango liratezke.
- Plastikozko eta metalezko ontzi eta botailak sartzean diruaren zati bat bueltatzen duten makinak jarri beharko lituzkete hipermerkatuetako sarreretan. Horrela, mota honetako ontziak birziklatu egingo genituzke. Hau guztia sustatzeko eta birziklapena orokorrean, Udaletxeak esker ona azaltzeko sariren bat eman beharko luke jarrera iraunkorra agertzen duten taldeei, bakarkakoei...

Zikinkeria hirian:

- Askotan asteburutan, kaleetan usain txarra egoten da tabernetan ez digutelako pixa egitera sartzen uzten eta komun publikoak gauetan itxita daudelako. Debaldeko komun gehiago jartzea nahiko genuke. Festetan, batik bat, komun mugikor gehiago jarri behar dira.
- Zakurren jabeek hauen kaka jaso behar dutela gogorarazteko kartelak jarri. Jasotzen ez badute, isunak jarri.
- Kaleetan hautsontziak jarri edota zakarrontziak honetara egokitu, jendeak zigarrokina lurrera bota ez dezan.
- Kalea garbitzen duen makina sarriago pasa dadila.
- Txalupak dauzkatenei itsasoan dagoen zaborra jasotzeko eskatu.
- Edukiontzia eta zakarrontziak hausten dituztenei isunak jarri eta baita lurrera gauzak botatzen dituztenei ere.
- Festetan botailak lurrean hautsita geratu orde, zerbait egin erabilitakoan bueltatzeko. Adibidez, dirua bueltatzea.
- Urumea hilean behin garbitzea gustatuko litzaiguke, mareak behera egiten duenean zikinkeria asko ikusten delako (Mundaizeko eta Santa Catalinako zubien inguruan esaterako).

Mugikortasuna:

- Hiri guztian zehar bizikleten erabilera erraztea. Hobe komunikatutako Bidegorriak eta ibilbide berriak: Pasaia-Donostia, Bulevarra, Intxaurren-Gros-Garbera. Etxetik eskolara bizikletaz joateko aukera izatea.
- Autobus eta taxi guztiek energia berriztagarriak eta biodiesel erabil dezatela gutxiago kutsatzeko. Taxi gidariei baimena eman aurretik baldintza hori bete dezatela.
- Ez gara ados jartzen garraio publikoa merkea ala garestia den erabakitzeko garaian, baino prezioen beherakada bat proposa daiteke erabilera handitzen den ikusteko. Dena dela, familia ugari partaideentzat merkeago izan beharko litzateke. Gidariei ordaintzeko garaian diru gutxiago gastatzeko, autobus bikoitzak izatea egokiago izango litzateke.
- Kotxea gutxiago erabiltzeko erraztasunak eman.
- Oinezkoentza gune gehiago zabaldu.
- Kotxea edota motoa gutxiago erabiltzeko honakoa eskatzen dugu: Gazte Bonobusa merkeagoa, beste herrietarako eta beste garraioetarako transbordoarekin.
- Tranbia nahiko genuke hirian, gutxiago kutsatzen duelako eta merkeagoa delako.
- Autobusen transbordoak ordu betera luzatzea. Maiztasuna eta ordutegiak zabaldu egin beharko liratezke.



adierazpena

Publizitatea:



- Udaletxeak arauak sor ditzala idatzizko publizitatea mugatzeko eta kontrolatzeko: tamaina, kopurua eta ea paper birziklatua den ikusteko (nahiz eta gune komertzial batzuk paper mota hau erabili, beste batzuk ez dute hala egiten) eta araua betetzen ez duen enpresak isuna ordain dezala.
- Gure etxeetara heltzen den publizitatea kontrolatzea. Esaterako: galdeketak egin jendeari publizitatea nahi duen jakiteko, eta emaitza horiek errespetatu. Etxeen kanpoaldean postontzi handi batzuk jarri publizitatearentzat, nahi duenak hartu ahal izateko. "Publizitaterik ez" moduko pegatinak banatu postontzian jartzeko.
- Gure hirian publizitate gutxiago egotea: erloju berrietako eta hiriko autobusetako propaganda kendu.
- Udaletxeak publizitate kanpaina hunkigarriagoak egin beharko lituzke (kalteak eta ondorioak jakinarazteko), daudenak ez baitira eraginkorrak. Ez da publizitate sexista izan behar eta hizkuntza desberdinetan egon behar da. Garrantzitsua da publizitate hau mota guztietako pertsonengana heltzea.

Ura eta energia aurrezteko:

- Baliabide guztiak erabiltzeko garaian Udaletxea eredu izan behar da. Adibidez, ura eta energia aurreztu beharko luke eta paper birziklatua erabili. Uraren erabilera desegokia ekiditeko, tuberiak egoki edukitzea komeni da, ur galerak ez izateko. Adibidez, Gipuzkoa plazako iturriaren inguruan.
- Udaletxean eta bere egoitzetan erabiltzen den energia berriztagarria izan behar da eta termostatoak eta beste sistema batzuk jarri beahr dira (kristal bikoitza leihoetan esaterako) energiaren eta uraren kontsumoa gutxitzeko.
- Energia berriztagarriak erabiltzeko dirulaguntzak. Eguzki panelak edo antzekoak jartzeko dirulaguntzak, energia alternatiboak errentagarriagoak izan daitezten.
- Gabonetan argi gutxiago jartzea eta solik kale nagusienetan: Boulevardean, Askatasunaren hiribidean... Ez ditugu gehiegikeriak eta horterradak atsegin!
- Babes ofizialeko etxeak material ekologikoekin eta energia aurrezteko sistemekin eraikitzea eskatzen diogu Udaletxeari.
- Dendariekin gauetako argizatzeak negoziatzea (denda askotako erakusleihoko argiak gau osoan zehar egoten dira piztuta, kartel diztiratsua eguneko 24 ordutan daude piztuta). Egokia iruditzen zaigu egun argiz argi nahikoa dagoenean, erakusleihotako argiak itzalita egotea.
- Kaleargiak askotan beharrik gabe egoten dira piztuta; ordutegia kontrolatzea komenigarri iruditzen zaigu.
- Beharrezko diren lekuak argitzeko kaleargiak: Trintxerpetik Herrerarako Topoa, Illumbe, Intxaurrendoko parkea, Jesuitetako kalezuloa eta Larratxoko parque berrian...
- Kaleargiak aldatu eta berantza argitzen dutenak solik ipini. Oinezkoentzat hauek dira egokienak eta beharrezko dena bakarrik argitzen dutenez, ez diete inguruko etxe bizitzeei trabarik egiten.



- Iturri publikoak itzaltzeko sensoreekin, kontsumoa kontrolatzeko.

Erosketak eta kontsumoa:

- Udaletxeak telazko erosketak poltsak bana ditzake, berrerabili ahal izateko. Plastikozko poltsen erabilera murrizteko kanpaina bat ere egin dezake. Paper birziklatuz eginiko poltsen erabilera sustatu behar da.
- Laguntzen bidez produktu ekologikoen kontsumoa sustatu.
- Paper birziklatua oso garestia denez, Udaletxeak erabilera ugaritzeko dirulaguntzak eman beharko lituzke.



Beste batzuk:

Eta azkenik prebentzio moduan, eta gure espazioa baloratzeko eta ezagutzeko asmotan, zera gustatuko litzaiguke:

- Noizean behin lurralde antolaketaren egitasmoen berri izatea (nahikoak liritezke mapak, errepide aldaketak, industri gune berriak, auzo berriak, erraustegiak...)
- Eskoletara inguruari buruzko oinarritzko eta kalitatezko materialak banatu: mapak, datu estadistikoak... (lortzeko oso zailak dira)
- Gure natur guneak ezagutu ahal izateko ibilbide didaktikoak antolatu, urbanismoaren eta industriaren inpaktua baloratzeko.

1. Presentación

Somos 2.300 chicos y chicas de Donostia que a lo largo de este curso hemos participado en dos procesos: en la Agenda 21 escolar y en la V Audiencia Pública a los chicos y chicas de San Sebastián.

El manifiesto que hoy presentamos en el Ayuntamiento lo compartimos entre todos por que aunque hemos trabajado en dos proyectos diferentes hemos compartido todas las conclusiones y nos hemos puesto de acuerdo para venir aquí, al Ayuntamiento con un único documento final.

Perteneceemos a los colegios:

Arantzazuko Ama Ikastola • Barandiaran Lizeoa • Catalina de Erauso Ikastetxea • Colegio Inglés San Patricio • Ekintza Ikastola • Herri Ametsa Ikastola • Instituto de Alza • La Anunciata Ikastetxea • Orixe Ikastola • Politécnico Easo • San Ignacio Ikastetxea • San Luis la Salle Ikastetxea • Sdo. Corazón Mundaiz Ikastetxea • The English School • Zubiri-Manteo Ikastetxea

Y a los grupos:

AGI • Educadores de calle de Alza • Educadores de calle de Intxaurreondo • Grupo de tiempo libre Mundo Nuevo

Todos hemos trabajado entorno al tema de la sostenibilidad sobre todo medioambiental; consumos y residuos.



Quando las profesoras nos comentaron en clase lo que íbamos a hacer nos dijeron que se trataba de trabajar un tema que está de actualidad en la ciudad para sacar algunas conclusiones y luego compartirlas y debatirlas con chicos y chicas de otros colegios y grupos, traerlas aquí al Ayuntamiento y debatirlas también con vosotros. Esto nos gustó mucho, así que desde el principio nos pareció interesante participar. El proceso ha sido entretenido: Ayudados por unas fichas, nos animamos a salir fuera de la escuela y realizar diferentes actividades: investigar el estado de limpieza o suciedad de las calles cercanas a la escuela; realizar unos cuestionarios para conocer las costumbres de consumo y reciclaje de nuestras casas; hemos estado en comercios y bares para analizar sus actitudes y sus necesidades; también hemos observado los contenedores de recogida selectiva de la calle; hemos contabilizado y analizado la propaganda que llega a nuestras casas; nos ha dado la ocasión de hablar sobre el consumo promovido desde los grandes hipermercados; hemos clasificado los residuos generados en nuestras casas, llevando una serie de bolsas de basura a las aulas.

Una vez realizado esto hacíamos una valoración con toda esta información para recopilar ideas generales y propuestas específicas. Luego los representantes de cada colegio y grupos nos hemos reunido para poner en común todo el trabajo realizado en clase.



Hemos aprendido muchas cosas: qué es el desarrollo sostenible, si nos pasamos o no consumiendo, qué son los residuos, lo que se hace con ellos, que actualmente producimos demasiados residuos y que se están generando graves problemas, hemos analizado nuestra huella ecológica, hemos conocido las energías renovables, hemos hablado también sobre las soluciones... El tema nos ha dado mucho que pensar sobre nuestros hábitos y las repercusiones de estos en el medio ambiente.

